Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko urtarrilean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.346 eskaintza erregistratu dira 2024ko urtarrilean, abenduan baino 693 gehiago eta 2023ko urtarrilean baino 18 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko urtarrilean 213 eskaintza erregistratu dira Araban, 610 Gipuzkoan eta 523 Bizkaian. Eskaintzen % 15,8 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 45,3 Gipuzkoan eta % 38,9 Bizkaian.



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 90,2 egin dute gora (101 eskaintza gehiago); Bizkaian % 98,1 egin dute gora (259 eskaintza gehiago); Gipuzkoan, azkenik, eskaintzak gehien igo diren lurraldea da, % 120,2 igo baitira (333 eskaintza gehiago).

Iazko hilabete beraren aldean, Araban 18 eskaintza gutxiago izan dira (% 7,8ko beherakada); Gipuzkoan 51tan jaitsi dira eskaintzak (% 7,7 gutxiago); eta Bizkaia, berriz, eskaintzak igo diren lurralde bakarra da, 37 eskaintza gehiagorekin (+% 7,6).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn erregistratutako eskaintza gehien dituen profila laguntzako teknikariena da, 246 eskaintza eta eskaintza guztien % 18,3rekin. Ondoren, ez kualifikatuen profila dago, 231 eskaintza eta % 17,2 ko pisuarekin. Zientzietako teknikari, zerbitzuetako eta industriako okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistro-eskaintzei dagokienez, eskaintza-bolumenaren ehunekoak % 15,5, % 15,1 eta % 13,4 izan baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 32 eta 9 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearen aldean, igo egin dira eskaintzak okupazio guztietan. Balio absolutuetan, gehien igo den profila laguntza-teknikariena izan da, 133 eskaintza gehiagorekin eta % 117,7ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena lehen sektoreko eskaintzetan gertatu da, % 433,3ko igoerarekin (26 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari dagokionez, igoera absolutu handiena operadoreen profilean gertatu da, 17 eskaintza gehiagorekin eta % 16,8ko hazkundearekin; ehuneko hazkunderik handiena, aldiz, zuzendarien eskaintzek izan dute, % 125eko hazkundea eta 5 eskaintza gehiago jaso baitira. Aitzitik, balio absolutu zein erlatiboetan, gehien jaitsi diren eskaintzak zientzietako teknikarien profilekoak izan dira, 56 eskaintza gutxiagorekin eta % 21,2ko jaitsierarekin.

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako eskaintzen % 36,6 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 62,6 aldi baterakoak, eta gainerako % 0,7 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa handia da serie historikoarekin alderatuta, abendutik hona puntu 1 baino gehiago murriztu bada ere; aitzitik, iazko urtarriletik hona 6 puntu baino gehiagotan hazi da. Datu horiek indartu egiten dute lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera. Mugagabeko eskaintzak 493 izan dira, aurreko hilean baino 243 gehiago (% 97,2ko gorakada). Aldi baterako eskaintzek ere gora egin dute (443 eskaintza gehiago), 843 izan dira guztira; balio erlatiboetan, hazkundea % 110,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako 10 eskaintza izan da 2024ko urtarrilean, aurreko hilean baino 7 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeko 79 eskaintza gehiago egon dira (% 19,1eko gorakada); aldi baterako eskaintzek, aldiz, % 11,3 egin dute behera, 107 eskaintza gutxiago. Azkenik, merkataritzako 4 eskaintza gutxiago erregistratu dira urte arteko konparaketan.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2024ko urtarrilean erregistratutako eskaintzen % 77,6k 0 eta 6 hil arteko esperientzia behar dute, 1.045 eskaintza guztira. Eskaintzen % 11,3k (152 guztira) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia-aldi luzeagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitartekoek, % 2,6ko pisuarekin (35 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago eskatzen dituztenek; 9 eskaintza eta % 0,7ko pisua.

Hilabete arteko bilakaerari dagokionez, eskaintzak hazi egin dira eskatutako esperientzia-tarte guztietan. Gorakadarik handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete bitartekoen taldean gertatu da, 554 eskaintza gehiago eta % 112,8ko igoerarekin.

Urteko bilakaerari dagokionez, jaitsi egin dira 0 eta 6 hilabete bitarteko eskaintzak (% 3,8ko beherakada eta 41 eskaintza gutxiago) eta 1 eta 3 urte artekoak (-%11,8, 14 eskaintza gutxiago). Aitzitik, hazi egin dira 6-12 hilabeteko esperientzia behar dituzten eskaintzak (+% 6,3, +9), 3-5 urte behar dituztenak (+10 eskaintza, +% 40) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak (+4 eskaintza eta % 80ko hazkundea).

Urtarrilean, erregistratutako lan-eskaintzek 8 hilabeteko batez besteko esperientzia eskatu dute, abenduan bezala.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lan-jardunaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 11,4k bakarrik zehazten dute lanaldia, aurreko hilean baino 3,6 puntu gehiago (1.346 eskaintzatik 154k soilik). 154 eskaintza horietatik 125 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerakoak 29 lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 41 gehiago izan dira abenduarekin alderatuta, hau da, % 48,8ko igoera. Lanaldi partzialeko eskaintzek gora egin dute 15 eskaintzatan, eta hazkunde erlatiboa % 107,1ekoa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak murriztu egin dira eskaintza 1en (% 0,8 gutxiago); lanaldi partzialekoak ere murriztu egin dira (5 eskaintza gutxiago eta % 14,7ko beherakada).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 7 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 1 gehiago eta aurreko urtean baino 11 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 83,1ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.346 eskaintzetatik 228k soilik zehaztu dute.



228 eskaintza horietatik, 100ek Lanbide Heziketa mailako prestakuntza eskatu dute; ikasketa maila honetako eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, oinarrizko ikasketa maila eskatu dutenak daude; 61 izan dira urtarrilean. Azkenik, unibertsitateko eta batxilergoko ikasketak behar dituzten eskaintzak daude (58 eta 9 eskaintza, hurrenez hurren).

Hil arteko konparaketan, ikasketa-profil guztien eskaintzak hazi egin dira. Igoerarik handiena, balio absolutuetan, LHko ikasketen eskaintzetan gertatu da, 46 gehiago eta % 85,2ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, igoerarik handiena oinarrizko ikasketak behar dituzten eskaintzetan gertatu da, % 96,8ko hazkundearekin (30 eskaintza gehiago).

2023ko urtarrilaren aldean, oinarrizko ikasketak behar dituzten eskaintzek soilik egin dute gora (19 eskaintza gehiago, +% 45,2). Aitzitik, balio absolutuetan gehien murriztu diren eskaintzak unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak dira, 30 eskaintza gutxiagorekin (% 34,1eko

beherakada); balio erlatiboetan, berriz, batxilergoko ikasketak beharrezkoak dituzten eskaintzak murriztu dira gehien, % 47,1a eta 8 eskaintza gutxiago.

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumena kontutan hartuta, manufaktura industriako eskaintzak dira pisu handiena dutenak; % 13,9a hain zuzen ere (187 eskaintza). Atzetik datoz jarduera administratiboko eskaintzak, 184 eskaintza eta hil honetako eskaintza guztien % 13,7a.

Aurreko hilabetearen aldean, jarduera gehienetako eskaintzak hazi dira. Jaitsi diren bakarrak, administrazio publikoko eskaintzak (-30, % 40ko murrizketa) eta lehen sektorekoak dira (9 eskaintza gutxiago eta % 56,3ko beherakada). Bestalde, hazkunde handiena izan duten eskaintzak honako hauek izan dira: jarduera administratiboa (+130 eskaintza), manufaktura industria (+117) eta osasun jarduerak (+104).

Urte arteko saldoari dagokionez, zenbaki absolutuetan, nabarmentzekoak dira merkataritzako igoera, 27 eskaintza gehiagorekin eta informazio jarduerena (+9 eskaintza). Aitzitik, jaitsierarik handiena, zenbaki absolutuetan, administrazio publikoan gertatu da, 29 eskaintza gutxiago eta % 39,1eko jaitsierarekin; ondoren eraikuntzak jasan du beherakada handiena, 21 eskaintza gutxiagorekin (-% 24,7).